

XaguArteak Elena Mendizabali:

Xaguon arteko lehen ezkurretik hasita,
73 aletan zehar, oraina jasoz lehena idazten eta geroa ereiten!
Zenbat lan, zenbat istorio, zenbat argazki, zenbat hitz...
Zenbat zerrenda, zenbat dei, zenbat igande arratsalde...
Zenbat oroitzapen elkarrekin!
Eta guztia ixilik; alferrikako zaratekin denbora galdu gabe,
umorez eta indarrez gainezka,
nekaezin lanean, astero-astero, hilerok-hilerok.
Oztopoak oztopo, neguak negu, baina beti aurrera
gure artearen, xaguon artearen alde.
Ilusioz izan zinen sortzaile, ilusioz hazten parte hartu duzu
eta orain, joan zarenean, ilusio horri eutsi nahi diogu.
Zuk ereindako ilusiozko ezkurren bidetik,
eta zuk erakutsitako indar guztiarekin,
Xaguarteak aurrera jarrai dezan.
Bihotzez eskerrik asko, Elena!

Fundazioak "gazta eta sagardo mendia" proiektua sortu du

Zerain Dezagun Fundazioak, indarberrituta eta asmo berriekin ekin dio 2012. urteari betiko ildoari eutsiz: Landa eremuetako giza komunitatea osatzen duten gizakien iraupena duintasunez bizitzeko aukera bilaka dadin, ekimen sozial eta prozesu mikroekonomikoak sustatzea lehen sektorea eta hirugarrena uztartuz. Orokorrean, herriaren garapen sozio-ekonomikoa indartzea.

Lehenik eta behin, bene benetan, ESKERTU nahi genieke urte hauetan Fundazioaren bazkide eta laguntzaile direnei eta urtero 30€ko kuota zintzo asko ordaintzen ari direnei. Dirua garrantzitsua da gure helburuak lortzeko, baina are eta gehiago Zerainen laguna izatea eta herri hobe baten alde horrelako joera erakustea.

Oraingo honetan esku-artean darabilgun proiektu berri baten berri eman nahi dugu: **GAZTA ETA SAGARDO MENDIA**. Gaur egungo merkatuaren azterketa egin ondoren eta turismo arloan gastronomia geroz eta garrantzia handiagoa hartzen ari dela ikusirik, gure herriko bi produktu izar lotu eta "GAZTA ETA SAGARDOAREN MENDIA" proiektua sortu da helburu hauekin:

-Gaztagileen eta sagardogileen salmenta gehitzea.

-Sagardotegietako txotx garaia indartu eta bezero berriak erakartzea.

-Herriko kalitatezko produktuen denda indartu eta salmentak gehitzea.

-Museoaren osagarri izango den erakusketa iraunkorra egin eta museoaren eskaintza zabaltzea: erakusketa ikusi, ikus-entzunezkoa, katak, etab.

-Herrira datozen bisitari kopurua gehitu, herriko beste zerbitzuetara ere bezeroak gehituz (Nekazalturismo, jatetxe, etab.).

Asmo honen proiektua osatzea eta burutzea herriko Aldabe enpresari eman zaio eta Eusko Jaurlaritzaren eta Zeraingo Udalaren babesarekin. Lortuta dauden diru laguntzak: Zeraingo Udalak Eusko Jaurlaritzako kultura sailetik, 16.472,75 €; Aldabek Liderretik, 9.345,00 €; Aldabek Aldundiko kultura sailetik 3.000,00 €. Guztira: 28.817,75 €

Ekintza askok osatzen dute proiektu hau; hona aipagarrienak:

Sagardogintzari buruzko ikus-entzunezkoa egiten ari da Arteman komunikazio enpresa. Bideo hori hainbat bidetatik zabalduko da ondoren.

"Gazta eta sagardoaren mendia"

"erakusketa" antolatuko da kultur etxean eta Faktore enpresa ari da erakusketa lantzen.

Autobus zerbitzua eskainiko da martxoko ostiral eta larunbat iluntzetan Oiharte eta Otatza sagardotegietara etortzeko. Autobusak Legazpitik eta Ordizitik abiatuko dira, eta kostua beregain hartuko dute sagardotegiek.

Hainbat **ikastaro** antolatu dira sagardoaren eta gaztaren katak Zerainen egiteko. Lehena otsailaren hasieran egin zen Otatzan.

Herriko gaztandegietan **bisita gidatuak** egiteko aukera eskainiko zaie 15 lagun baino gehiagoko taldeei.

Asteburuetan **erakusketa + kata** eskainiko dira eguerdian bisitariarentzat turismo bulegoak antolatuta. Herriko museoarekin batera, erakusketa bisitatzeko eta kata (sagardoa eta gazta) egiteko aukera izango dute bisitariak. Horrez gain, sagardotegian katak egiteko aukera egongo da, 15 lagun baino gehiagoko taldeentzat aurrez abisatuta.

Eskuorrien bitartez eta inguruko komunikabideen **promozioa** eginez emango da "gazta eta sagardo mendia" proiektuaren berri.

Santa eskea



Ohitura zaharrari eutsi eta hotzari aurre eginez, Santa Ageda bezpera ospatu zen aurten ere. Guztira 1417,60 euro bildu ziren eta minbizidun haurren elkarteari emango zaio diru hori.

Mermeladagintza

Herriko produktuekin albergean mermeladak egiten zituen taldeak utzi zion lan horri, eta halako lanetan inor interesaturik balego, jakinarazi dezala.

Endika Alustizaren XIX. memoria



Otsailaren 26an jokatu zen Endika Alustiza zenaren omenezko XIX. memorialeko emaitzak: 1.-Martin Retegi, 2.-Jose Ugarteburu, 3.-Miguel Burugain, 4.-Andoni Berasategi, 5.-Luis Aizpeolea, 6.-Aitziber Makazaga, 7.-Mikel Arroio eta 8.-Itoitz Alustiza.

Argindarraren tentsioa

Azpiegituren komisioa herrian dauden argindar arazoak detektatu nahian dabil. Norbaitek etxean argindar potentzia gutxi duela uste badu, deitu udaletxera eta neurtzera joango dira komisioko kideak.

Etxebizitza eskaria

Hirigintzako komisioak herrian dagoen etxebizitza beharra ezagutu nahi du. Interesatuak udaletxean izena eman dezatela apirilaren 13 baino lehen.

Goi-tentsioko kablearen kontrako bandelora

Zeraindik ere pasa nahi duten goi-tentsioko kablearen aurkako Udalen lantaldeak protesta bandelora ateratu ditu. Nahi duenak eska dezala udaletxean martxoaren 5a baino lehen.

Urkullu

Ez da lan gozoa, familiarteko bat edo lagunen bat hildakoan berriro lumari heltzea. Ez lumari eta ez, oraingoan bezala, teklari. Elena eta tio Anizeto joan zaizkigu, aste gutxiko tartean. Orain hilabete inguru hil da Otatzako Elena Mendizabal, artean gazte eta sasoiko genuela. Zeraingo hainbat herri-lanetan aurre-aurrean ibilia da Elena, urte askotan. *Xaguarteren* ataltxo honetan ere, guztiok dakizueenez, bihotz eta hauspo izana dugu hasieratik. Bagenekien, aspalditxo, osasun-arazo serioa zuela. Bagenekien, hori bezain ondo, gizatasun handiz eta ingurukook bere kezka bide saminez nekatu gabe jakin diola gaixotasunari eusten eta aurre egiten. Eredu izan da horretan ere. Askok sentitu dugu herrian, eta nahigabe saminez adierazi, bere heriotza. Lagun mina galdu dugu, lankide prestu eta alaiaz gainera. Eginkizun edo egingarri ikusten zuena apal eta argi adierazten zekien laguna: txikian handi.

Ez da gutako zenbaitentzat, bistan da, unerik argiena oraingo hau: idazten ari naizen larunbat goiz honetan ez dira oraindik hiru egun Anizeto Alustiza lurperatu dugula. Orain ahazturik-edo dauden urte ilunetan lan isil baina beharkeoa egin zuen Anizetok, herriaren alde: hala entzuna diot herritar bati baino gehiagori. Elenak bezala, eta ondotoz lehenagotik, gaitzaren berri izana du tio Anizetok ere. Bestelako gaitza izan zen berea: urdailaldea, eta horrekin bizibide osoa gero, mugatu ziona. Mugak muga direla ere, begiarte arraiz bizi izan da beti, etxekoen berotasunean. Hamarkada hauetan ez diogu inoiz kexu lazgarririk entzun. Behinolako zeraindarren gizatasun-seinalea da, nire ustez, Anizetok eta Elenak erakutsi digutena: oraingo askok nekez aplika dezakegun gizatasun isil eta beregainaren seinalea. Gure errespeturik eta onginahirik sakonena biei, familiartekoei sentimenduan laguntzeaz gainera.

Hilabete pasa da, eta lanari ekin behar berriro. Lanbide polita jarri didate herenegun ilunabarrean, Jonek eta Xantik. Semea hasi da bidea markatzen: "Prestatuko al zenuke zerbait, *urkullu*

hitza?". Aita ere konforme asmoarekin. Baina nik: "nekez, lagunak: leku-izena edo toponimoa da zuen *urkullu* hori (*Urkullueta*), eta horrelakoetan ezer gutxi argitu dezaket nik". Haiek berehala erantzun: "ez-ez, leku-izenaz gainera hitz arrunta da *urkullu*. Hitz arrunta izana da eta oraintxe ari da galtzen. Holako eta holako lanetarako erabili izan da *urkullua* baserrian. Gainbehera datoz lanbide horiek, eta horiekin batera ari da hitza galtzen". Orduan jabetu naiz, deskuidaturik nenbilela. Bai: *urkullu* hitzaz zer edo zer esaten saiatu behar dugu gaurkoan.

Sartu naiz beraz OEHn. Baita uzta ederra bildu ere. Forma asko ditu hitzak: *urkulu*, *urkulu*, *urkuilu*, *urkullu*, *urkuilo* eta *urkullo*. Oso antzekoak dira guztiak: hitz bakar baten aurrean gaude. Hitz gehien erabiltzen den lekua, berriz, Bizkaia da. Zehatzago esanik, Bizkaia eta dot (ez det) esaten den Gipuzkoako esparrua, Bergara eta Oñati aldeak barruan direla. Beste zenbait kasutan ikusi izan dugun bezala, Aizkorpeko Goierrialde honetara iristen da, oraingoan ere, dot-esparruko eragina. Kontuz ordea: gainerako Gipuzkoan eta, are, Iparraldean ere jaso izan da hitzaren testigantzarik. Litekeena da, beraz, garai batean aski zabal erabilia izana. Zer esan nahi du *urkullu* horrek? Gauza asko. Bederatzi adiera ematen ditu hiztegiak. Honatx:

1. "utensilio manual en forma de horca; horquilla, utensilio de labradores; horquilla para meter combustible en el horno". Xantik esan didan erabile-ra ere, gurdietako *urkullu* edo *hagarena*, bete-betean dago jaso. Honela dakar hiztegiak: "urkullu, gurdia otaz zamatzeko bi-belarridun aga";

2. "puntal de árboles, plantas; horcón [...] de sostener las ramas; ahorquillar árboles para que no se desgajen las ramas; puntal, tentemozo de árboles". Honelakoa da adibide hau: "urkulloak ifiñi adarrazprietan";

3.- "tipo de marca en las orejas del ganado; mella en medio de la oreja en forma de horquijo".

4. "horquilla formada por las ramas de un árbol".

5. "cola de milano, espiga de ensamblar maderas". Goierriin jasotako adiera omen da hau: ezagutzen al du Zerainen inork? Araneko Joakinek zer dio?

6. "rasguño en la ropa"

7. "Tenazas". Bizkaian jaso izan da adiera hori. Zerainen ere erabili izan ote da horrela?

8. "Detrás del fogón se levanta un poste llamado urkullu [...]: es uno de los soportes del caballete del techo", hau ere Bizkaian jaso.

9. "Urkullua, la confluencia de dos ríos". Izagirre zenak Arantzazu-Oñatin jaso da adiera hori, eta aplikazio zuzena du Zerainen: hemen ere bada erreka bik osaturiko *urkullu(eta)*. Erdiz erdi asmatu zuten Jonek eta Xantik herenegun, Zeraingo *Urkulluetari* izena hortik ez ote datorkion iradoki zidatenean.

Galtzen ari da *urkullu*. Nola ez? Nor bizi da gaur egun gurditik eta sagarretik, abereei belarrian markak egitetik, egur-zatiak ensanblatzetik eta tetxoko habea zuhaitz-adarrez zurkaiztetik? Lanbidea eta bizimodua aldatzen ari dira txistu bizian. Mende luzez bere hartan-edo iraun duten lan-moldeak erro-errotik aldatzen ari gara, berriak hartzen eta zaharrak baztertzen. Alde batera uzten ditugun lan-prozedurek, eta zegozkien tresnek, ez dute izen beharrik. Toponimia izango da itxuraz, hemen ere, gizarte-aldakuntza bortitz horri luzaroen eutsiko diona. Jendeak ez dauka jakin beharrik *urkullua* zer zen, *Urkulluetari* *Urkullueta* esaten segitzeko.

Ohar linguistiko xumea, azkenik. Zabalkuntza semantikoren adibide argia da *urkullu* hitzaren zenbait adiera. Hitz-eraketazko prozedura berberaren adibide dira bai "confluencia de dos ríos" hori eta bai beste gehienak. Ondorio argia ikusten da horrelakoetan: zabalkuntza semantikoz jokatu izan da sarri, hitz berririk asmatzen hasi gabe, gauzak eta lekuak izendatzerakoan. Orain ere bai? Besterik da hori. Hobe izango da, maixukeriez inor aspertu gabe eta joandako lagun biak gogoan ditugula, gogoeta hori hurrengo baterako uztea.



Xagu-txoko



Babesetik

URTARRILA	al	ar	az	og	or	lr	ig
							1
Euria (l/m)	GUZTIRA: 96 l.						0
C° altuena	ALTUENA: 17°						15
C° baxuena	BAXUENA: -1°						6
	2	3	4	5	6	7	8
Euria (l/m)	7	0	6	4	10	1,5	1,5
C° altuena	12	11	11	11	10	12	11
C° baxuena	7	1	5	3	3	5	7
	9	10	11	12	13	14	15
Euria (l/m)	0	0	0	0	0	0	2
C° altuena	8	10	8	9	9	7	11
C° baxuena	5	3	0	-1	5	3	-2
	16	17	18	19	20	21	22
Euria (l/m)	0	0	0	2,5	6	4,5	2,5
C° altuena	7	11	12	17	12	13	13
C° baxuena	5	2	-1	7	9	8	9
	23	24	25	26	27	28	29
Euria (l/m)	2	1	0	3	3	12	23
C° altuena	12	10	10	10	9	9	4
C° baxuena	8	7	0,5	0	4	3	1
	30	31					
Euria (l/m)	1	3,5					
C° altuena	7	9					
C° baxuena	1	0					

Urtarrilean hotz handirik gabe

Urtearen lehen hilabeteak, hilteltzak, beltzetik ez du askorik eduki aurren. Temperaturak ez dira hotzegiak izan, nahiz eta zeroperaino justu-justuan, egun pare batean iritsi den termometroa. Hori bai, nahiko bustia izan da, 31 egunetatik 19tan zerbait bota baitu. Baina litrotan gehiegi ez; guztira 96 litro. Eta horietatik herena baino gehiago bi egunetan elur eta elur-busti moduan. Kontuak kontu, aspaldian ikusi gabeko elurrak argazki politak utzi dizkigu.



Inauteriak eskolan

Inauterietan, ohi bezala, eskolako haurrek inauteriak ospatu zituzten dotore-dotore mozorrotuta eta antzerki bikaina eginda. Festa koloretsu aparta izan zen

Emakumeen eguna ospatzeko bertso-afaria

Martxoaren 10ean, larunbata, bertso-afaria egingo da Ostatur Amaiia Agirre eta Onintza Enbeita bertsolariekin, emakumeen nazioarteko eguna ospatzeko. Sarrerak 20 euro balio du helduentzat eta 10 gaztetxentzat. Afarira joan nahi dutenek Ostatur bertan eman behar dute izena martxoaren 1etik 6ra bitartean. (Gehienez 45 lagunentzako tokia).

Txalaparta eta argazki ikastaroak

Oa kultur elkarteak txalaparta eta argazki ikastaroak antolatu nahi ditu udaberrirako. Batean zein bestean parte hartzeko interesa dutenek izena udaletxean eman dezatela martxoaren 6a baino lehen. Izena emandakoan arabera antolatuko dira ikastaroen egunak eta orduak. Nahiko jende ez badago, ez dira egingo.



Tute txapelketa

Segurako Joxe Intsaustik eta haren koinatuak irabazi zuten tute txapelketa.



Mus txapelketa

Mari Sanperek eta alabak irabazi zuten musean Ikerren eta Jabierren kontra.